




Ajangizko Udala



## BANDOA

### Zerga kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko udal ordenantza

Ajangizko Udalak, zerga eta gainontzeko zuzenbide publikoko gainerako sarreren kudeaketa, bilketa, zehapen eta ikuskapen prozedurak arautzeko asmoa dauka.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Amankomuna arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 133 artikulua araututakoa kontutan hartuta, jendaurrean azaltzen da asmo hau interesdun izan daitezkeenak aportazioak egin ditzaten. Aportazioak aurkezteko epea 20 egunekoa izango da (2017ko uztailaren 20raino egun hau barne).

Aportazioak Ajangizko udaletxean aurkeztu beharko dira honako datu hauek argi azalduz:

- Aportazioa egiten duen pertsonaren izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, telefonoa eta korreo elektronikoa (hala badagokio).

Beharrezko dokumentazioa udal idazkaritzan izango da, goizeko 9:00etatik 14:00etara interesdun ororentzako.

Ajangizen, 2017ko ekainaren 22an.

ALKTEA

Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua